



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko otsailaren 19a

19. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administrazioa berrantolatzekoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (2. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Legea, osasun-arreta jarraitu eta larrialdikoari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita behar adinako diru-kopurua jar dezan, eskualdeko hiri garraioari dagokionez 8/1998 Foru Legeak ezarritako konpromisoetatik 2013rako heldu diren finantzaketa-betekizunak bete ahal izate aldera. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

—Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak uste osoz adierazten baitu lanaren banaketa helburu duten politikak, publikoak nahiz pribatuak, taxutu eta aplikatzearen alde dagoela. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

—Erabakia, zeinaren bidez Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen baitira zenbait neurri har ditzaten hipoteka-betearazpeneko prozeduretan etxegabetzeak saihesteko. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

—Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lege proiektu bat prestatzeko prozesu bati ekin diezaion, Iratiko Oihana natur parke deklaratzeko aldera. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

—Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita negoziazioak has ditzan finantza-entitateekin, etxegabetzeak saihesteko neurriak har ditzaten, eta Espainiako Gobernua premiatzen baita hipoteka-legearen egiazko erreforma bat abian jar dezan. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etxebizitza babestuaren tipologiak alda ditzan. Mozioa erretiratzea (9. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Deialdia, Nafarroako Parlamentuko gelazain nagusi burutza gelazainen kidegoko funtzionarioen artean merezimenduen lehiaketa bidez betetzekoa (10. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

**Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administra-
zioa berrantolatzekoa.**

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administrazioa berrantolatzeko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2013ko martxoaren 4ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu

foru lege proiektua 2012ko azaroaren 9ko 92. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, osasun-arreta jarraitu eta larrialdikoari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2013ko otsailaren 8an egindako Osoko Bilkuran, osasun-arreta jarraitu eta larrialdikoari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2013ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, osasun-arreta jarraitu eta larrialdikoari buruzkoa.

Ospitaleen eta osasun-etxeen modernizazioak, iragan mendeko hirurogeita hamarrek hamarkadan hasitakoak, Osasunaren Mundu Erakundearen gomendioen arabera oinarritzko osasun-laguntzaren erreformarekin batera –zeina Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorrean gauzatu baitzen, eta Nafarroan, berriz, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legean–, osasun-sistema publiko unibertsal, doako eta kalitate egiaztatuko baten oinarriak ezarri zituen, harrezkero mundu guztian onartzen denez. Laurogeita hamarrek urteen erdialderako, osasun-etxe berrietan, Nafarroako populazioaren ehuneko 95 artatzen zen, eta, hortaz, etekina ateratzen zien osasunaren sustapen, gaixotasunen prebentzio, laguntza eta errehabilitazio jardueri.

Halere, bizi-larrialdiek ospitaleei atxikirik jarraitu zuten, harik eta Nafarroako Larrialdien Plana, zeina 1997an onetsi baitzen, abian jarri zen arte. Harrezkero, anbulantzia medikalizatuen sareak ezbeharrak –gaixotasuna nahiz istripua– gertatu den lekuan ematen du laguntza espezializatua, eta landaguneetako osasun-langileek laguntza hori osatzen dute hirigune handietatik urrunduen dauden eremuetan.

2008an, Landa Eremuko Larrialdi Zerbitzua sortu zen, zeinak, antolakuntzaren aldetik aurrerabide handia izan ez bazen ere, hobetu egin baitzi-

tuen landa eremuko larrialdi medikoetako langileen lan-baldintzak, eta laguntza hobea ematea ahalbidetu baitzuen, profesional horiek laguntza jarraituko guneetan egon ahal izatea erraztu zuen eta.

Oinarritzko osasun laguntzako osasun zentron, arreta jarraituko eta larrialdiko arretako guneen eta arreta jarraituko eta larrialdiko arretako modalitateen orduetara eta funtzionamendua arautzen dituen abenduaren 19ko 131/2012 Foru Dekretuak lehenengo aldiz dakar Nafarroako herritarrei emandako osasun-arretan atzera egitea; izan ere, landa eremuko populazioarentzako eta erkidegoaren bide-sarerako egungo larrialdi-sistema erabitea dakar. Arau horrek nahasi egiten ditu osasun-arreta jarraitua eta larrialdikoa, nahasi egiten baititu zeharo ezberdinak diren arazoak eta beharizanak, eta okertu egiten du Nafarroako herritarrentzat ezarritako joan den prestazio-maila, ondokoen bidez ezarria: aipatu 10/1990 Foru Legea, Nafarroako errepideko osasun garraioa arautzen duten otsailaren 10eko 29/1997 eta otsailaren 7ko 8/2011 Foru Dekretuak, Ospitaleen kanpoko larrialdietako osasun laguntza Nafarroako Foru Komunitatean arautzen duen azaroaren 24ko 343/1997 Foru Dekretua eta Landa eremuan larrialdi medikoen zerbitzuak antolatzeke ereduari buruzko Akordioa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak eta sindikatuek 2008ko martxoan lortutakoa.

Foru dekretu horren aplikazioak arriskuan jarritzen du landa eremuetan bizi diren pertsonen eta Nafarroako bide-sareko erabiltzaileen segurtasuna, ustez kostuak aurrezteko justifikazio bakarrekin, zeina, bestalde, ez baita erreala. Ez da baliatu eredu eraginkorragoak eta, aldi berean, efizienteagoak aztertzeke aukera, landa eremuan bizi-larrialdien arreta hobetzen jarraitu ahal izateko. Argi dago landa eremuko oinarritzko laguntzaren eta larrialdikoaren egungo ereduak baduela zer hobetu, baina 131/2012 Foru Dekretuak ez du horretan laguntzen; aitzitik, ekitate printzipioen aurka doa herritar guztiek osasun-sisteman sarbi-

dea berdintasunez izateko baldintzei dagokienez, kudeaketaren deszentralizazioari eta parte-hartzeari dagokienez, osasun-arretaren kalitateari eta humanizazioari dagokienez eta erkidegoaren parte-hartzeari dagokienez, zeinak Osasunari buruzko Foru Legeko 4. artikuluan jasotzen baitira.

Foru lege honek alternatiba bat eskaini nahi du, foru dekretu horrek dakarren aldaketaren aldean, parte-hartze eta adostasun sozialik handiena ekarriko lukeen prozedura baten bitartez eredu berri bat taxutzeko.

Artikulu bakarra.

1. Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak Nafarroako landa eremuetako populazioaren beharrezan buruzko ebaluazio bat egingen du, osasun-arretari eta osasun-arreta jarraitu eta larrialdikoaren ereduaren inefizientziei dagokienez, eta oinarrizko osasun-laguntzako osasun-etxeen eta osasun-laguntza jarraitu eta larrialdikoaren modalitateen funtzionamenduari buruzko plan bat taxutu du osasun arloko profesionalen, toki entitateen eta arlo horrekin zerikusia duten eragile sozialen parte-hartzearekin, eta ahal den adostasunik handiena bilatuko du.

2. Nafarroako Gobernuak gehienez ere urtebeteko epean igorriko du aipatu plan hori Nafarroako Parlamentura, eztabaidatu eta onesteko.

Xedapen iragankor bakarra.

1. Foru lege honetako artikulua bakarrak aipatzen duen plana onesten ez den bitartean, abenduaren 19ko 131/2012 Foru Dekretua indarrean sartu zenean indarduna zen erregelamendu mailako araudia jarraituko da aplikatzen, aldatzen edo indargabetzen ez den bitartean.

2. Administrazio prozeduraren bat baldin bada go abenduaren 19ko 131/2012 Foru Dekretuaren arabera abian jarria eta ez duena behin betiko ebazpenik jaso, prozedura hori foru dekretua indarrean sartu aurreko araudiaren arabera ebatziko da.

Xedapen indargabetzaile bakarra.

Indargabeturik gelditzen da abenduaren 19ko 131/2012 Foru Dekretua, zeinaren bidez arautzen baitira oinarrizko osasun laguntzako osasun zentroen, arreta jarraituko eta larrialdiko arretako guneen eta arreta jarraituko eta larrialdiko arretako modalitateen ordutegia eta funtzionamendua.

Azken xedapen bakarra.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita behar adinako diru-kopurua jar dezan, eskualdeko hiri garraioari dagokionez 8/1998 Foru Legeak ezarritako konpromisoetatik 2013rako heldu diren finantzaketa-betekizunak bete ahal izate aldera.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko otsailaren 8an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita behar adinako diru-kopurua jar dezan, eskualdeko hiri garraioari dagokionez 8/1998 Foru Legeak ezarritako konpromisoetatik 2013rako heldu diren finantzaketa-betekizunak bete ahal izate aldera." Horren jatorria da Patxi Leuza García eta Manu Ayerdi Olaizola jaunek aurkeztutako mozio bat, 2012ko azaroaren 8ko 91. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar adinako diru-kopurua jar dezan, eskualdeko hiri garraioari dagokionez Iruñerriko bidaiari-garraio erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legeak ezarritako konpromisoetatik 2013rako heldu diren finantzaketa-betekizunak bete ahal izate aldera."

Iruñean, 2013ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak uste osoz adierazten baitu lanaren banaketa helburu duten politikak, publikoak nahiz pribatuak, taxutu eta aplikatzearen alde dagoela.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko otsailaren 8an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak uste osoz adierazten baitu lanaren banaketa helburu duten politikak, publikoak nahiz pribatuak, taxutu eta aplikatzearen alde dagoela."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere ustez beharrezkoa dela lanaren banaketara bideratutako politika publikoak eta pribatuak definitzea eta aplikatzea, eta bere jarrera horren aldekoa dela, lehentasuna emanez pertsona guztiak lana edukitzeko duten eskubideari eta dagoen lanaren gaineko plangintza solidarioa egiteari.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azterlan bat egin dezan lehenbailehen, administrazio publikoen esparruan barne-plangintza berri bat aplikatzeko, lanaren banaketa eraginkorra egin ahal izate aldera, lanal-

diak doituz edo gutxituz eta aparteko orduak kenduz. Plangintza hori sindikatuekin –alde sozialaren ordezkariekin– lankidetzan eta haiekin koordinatuta egingen da, ondokoak gogoan: bideragarritasun funtzionala, zerbitzu-ematearen efizientzia eta prestazio berriak sortzea.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du eztabaida abiaraz dezan

enpresa- eta sindikatu-erakunde guztiekin, helburu izan den helburu horiek berak lortzea enpresa pribatuan ere; alegia, lanaren banaketan aurrerabidea egitea, dagoen lana banatuz eta aparteko orduak berehala desagerraraziz”

Iruñean, 2013ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia, zeinaren bidez Espainiako Gobernuaren eta Nafarroako Gobernuaren premiatzen baitira zenbait neurri har ditzaten hipoteka-betearazpeneko prozeduretan etxegabetzeak saihesteko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko otsailaren 8an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia, zeinaren bidez Espainiako Gobernuaren eta Nafarroako Gobernuaren premiatzen baitira zenbait neurri har ditzaten hipoteka-betearazpeneko prozeduretan etxegabetzeak saihesteko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuaren premiatzen du agin dezan hipoteka-betearazpenak berehala etetea, horiek jabeak etxebizitzarik gabe eta etxebizitzarako eskubidea ziurtatzeko baliabiderik gabe uztea dakarten guztietan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du berehala geldiaraz ditzan gertatzen ari daitezkeen babes ofizialeko edozein modalitatetako etxebizitzaren etxegabetzeak. Era berean, premiatzen du balia ditzan lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak babes ofizialeko etxebizitzetan, hirugarren batek hipoteka-betearazpeneko prozedura bat abian jartzen duenean.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du hitzarmen bat sinatu dezan edonolako harreman finantzarioa duen banku eta aurrezki kutxekin, entitate horiek etxegabetzeak berehala eten ditzaten.

Hitzarmen horretan honako neurriok jasoko dira:

– Orain arte gauzatutako etxegabetzeak berrikustea eta, ondorioz, etxebizitza itzultzea etxerik edota beste etxe bat eskuratzeko baliabiderik ez duten pertsona edo familia etxegabetuei.

– Entitate finantzarioek konpromisoa hartzea, hipoteka-betearazpeneko prozedura bat abian jarri aurretik Nasuvinsa sozietate publikoaren esku utz dezaten ordaindu ezin den ohiko etxebizitza, etxebizitza horien erabilera eta okupazioa kudea dezan alokairu sozialaren bidez.

Hala, ukituek ez dute etxetik atera behar eta alokairu sozial bat ordaintzeko konpromisoa hartuko dute (alokairu horren kopurua familiaren erosahaltenaren arabera ezarriko litzateke, eta ez luke ezein kasutan izan behar familiaren diru-sarreen % 15 baino handiagoa).

– Arrazoi objektiboak desagertu eta familiak lehengo egoerara itzultzeko, alokairua ordaintzeari utzi eta berriro hipoteka ordaintzen hasiko lirateke (betiere, etxebizitzarako eskubidearen edukitzaileak hala nahi izanez gero).

– Banku entitateek stock-ean dituzten etxebizitzaren % 50 bideratuko dituzte alokairu sozialera, zeina bost urtez gozatuko baitute etxegabetutako pertsonen . Baldin eta entitate horiek Bankuak Era Antolatuan Berregituratzeko Funttsaren laguntza jaso badituzte, portzentajea beren etxebizitzaren stock-aren % 60ra igoko da.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du harreman ekonomikoak bertan behera utzi ditzan aurreko idatz-zatian jasotako hitzarmena sinatzen ez duten eta etxegabetzeak gauzatzen dituzten entitate finantzarioekin.

5. Nafarroako Parlamentuak espresuki adierazten dio bere babesaren Hipotekek ukitutako plataformak sustatzen ari diren herritarren legegintza ekimena izapidetzeari, zeinarekin bat egin baitute, sinaduren bidez, nafar herritar askok eta askok.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du susta dezan arlo fiskalean eta Nafarroaren eskumenekoak diren beste arlo batzuetan arautu dadila, ordainean ematea, etxe-

bizitza hipotekatuen jabeek beren betebeharrak kitatzeko neurri gisa.

7. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du konponbide bat azter dezan, Vinsan jada gertatzen ari diren alokairu-utzarazpenen kasuetarako”

Iruñean, 2013ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lege proiektu bat prestatzeko prozesu bati ekin diezaion, Iratiko Oihana natur parke deklaratzeko aldera.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko otsailaren 8an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lege proiektu bat prestatzeko prozesu bati ekin diezaion, Iratiko Oihana natur parke deklaratzeko aldera.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lege proiektu bat prestatzeko prozesu bati ekin diezaion, Zaraitzu Ibarreko Batzarrarekin lankidetzan, Iratiko Oihana natur

parke deklaratzeko aldera. Proiektu hori soilik Zaraitzu Ibarreko mugape geografikoari buruzkoa izan ahalko da. Proiektu hori bost hilabeteko epean aurkeztuko da, gehienez ere.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du izan beharreko harremanak izan ditzan aldi berean, jakite aldera zein den Aezkoako Ibarreko Batzarraren jarrera, natur parkearen deklarazio hori Irati osoari buruz egiteari dagokionez, bi entitate horiek sartzen direlako horren barruan”

Iruñean, 2013ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita negoziazioak has ditzan finantza-entitateekin, etxegabetzeak saihesteko neurriak har ditzaten, eta Espainiako Gobernua premiatzen baita hipoteka-legearen egiazko erreforma bat abian jar dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko otsailaren 8an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita negoziazioak has ditzan finantza-entitateekin, etxegabetzeak saihesteko neurriak har ditzaten, eta Espainiako Gobernua premiatzen baita hipoteka-legearen egiazko erreforma bat abian jar dezan”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak eskatzen du berehala birmolda dadin zerbitzu hori, halako moduan non emaitza hobekak lortu ahalko baitira egoera zail horietan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du negoziazioak has ditzan finantza entitateekin, etxegabetzeak ekiditeko hartu beharreko neurriak har daitezten, halako moduan non ez baitira berandutzan jarriko langabezia egoeraren ondorioz hipotekak ordaindu ez dituzten herritarrak, eta ez den haien kontrako ekintzarik abiaraziko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egin beharreko arau-aldaketak egin ditzan, amaiazte aldera familiek eta zordun hipotekarioek halabeharrez bizi beharreko babesgabetasun-egoera. Gutxienez ere, ondoko neurriak hartzeko modua emanen dute:

- Hiru urtez etenen dira, egoera ekonomiko bereziki makurreko kolektiboen kasuan, ohiko etxebizitzaren eta negozio-lokalen gaineko exekuzioak eta kaleratzeak, baldin eta haien inguruabar ekonomikoak nabarmen aldatu badira eta haien etxebizitza bakarraren edo negozio-lokalaren gaineko kuota hipotekarioa beren diru-sarrera garbien ehuneko 50 baino handiagoa bada.

- Hartzekodun hipotekarioarekiko zordunaren posizioa orekatuko dute, abusuzko klausulei dago-kienez: etxebizitzaren tasazioa ez da inolaz ere izanen mailegua emateko baliatu zen tasazioaren balioa baino txikiagoa, enkante-prozeduretako abusuak, berandutze-interesak eta gehiegizko zorpetzea.

- Auzibidetik kanpoko prozedura, konkurtso-prozeduraren aurrekoa, pertsonen ustekabeko gehiegizko zorpetze dologabearen arazoa konpontzeko, esku-hartze notarialarekiko hartzekodunen hitzarmen baten bidez, halako moduan non ezin izanen baita zordunaren etxebizitzaren edo lokalaren gaineko exekuzio hipotekarioa abiarazi, auzibidetik kanpoko prozedura nahiz prozedura judiziala gauzatzen den bitartean. (Beste herrialde batzuetan, "bigarren aukera"ren izena ematen zaio).

- Bermeak handitzea martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-dekretuaren bidez araututako jardunbide egokien kodean, halako moduan non kredituentitate guztiak nahitaez atxikiko baitzaizkio kodeari, zeina iraunkorra izanen baita eta neurriak jasotzen baititu zorra berregituratzeko, amortizatzeke dagoen kapitalaren kitarako, etxebizitza ordainean emateko eta ordainean ematearen xede den etxebizitza errentan emateko. Orobat handitzea "bazterketa-atalasea", eta lanaren edo jardura ekonomikoen ondoriozko errenta Askotarako Errenta Adierazle Publikoaren (IPREM) halako

hirukoa baino handiagoa ez duten familiei errenta eskura dezaten uztea, hipotekatutako etxebizitzaren erosketa-prezioen mugak igoz, jardunbide egokien kodearen aplikazioaren ondorioetarako. Ehuneko 50era jaisten da, berriz, hipotekaren kuotak familieren diru-sarrera garbiekiko egin behar duen porzentaia, eta ehuneko 2ra mugatzen da berandutze-interesaren igoera, zordun horien mailegutik kitatzeke dagoen kapitalarekiko.

- Alokairu sozialeko parke publiko bat sortzea, etxebizitzarako eskubidea bermatzeko, inguruabar ekonomikoen eta familiarren arabera prezioarekin, etxegabetze-prozedura batean ustekabeko kaudimengabezia-egoera baten ondorioz beren etxebizitza galdu duten pertsonen. Bai eta kreditu-lerro bat ere, Kreditu Ofizialaren Institutuaren bitartez, prozesu horiek ukitutako zorren ordainketa erraztuko duena.

- Eta beste batzuk; esaterako, tasa judizialeatik salbuestea, aipatutako prozesu guztietan, pertsona fisiko guztiak, zordunak nahiz berme-emaileak izan; arlo horiekin lotutako notario-ordainsariak erdira jaistea, eta interes-tasak mugatzea hipoteka-kreditu edo mailegurako kontratuetan, baldin eta horietan bermea bada ohiko etxebizitza edo langile autonomoak bere jardura garatzeko baliatzen duen negozio-lokala.

4. Nafarroako Parlamentuak espresuki adierazten dio bere babesaren Hipotekak ukitutako plataformak sustatzen ari diren herritarren legegintza ekimena izapidetzeari, zeinarekin bat egin baitute, sinaduren bidez, nafar herritar askok eta askok.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du susta dezan arlo fiskalean eta Nafarroaren eskumenekoak diren beste arlo batzuetan arautu dadila ordainean ematea, etxebizitza hipotekatuen jabeek beren betebeharrak kitatzeko neurri gisa.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du abiaraz ditzan "alokairu soziala" erabakitasunez sustatzen duten jarduketak, arrazoi ekonomikoak direla-eta etxebizitza bat lortzeko zailtasunak dituzten familia nafarrentzako proposamen gisa.

7. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du konponbide bat azter dezan, Vinsan jada gertatzen ari diren alokairu-utzarazpenen kasuetarako.

Iruñean, 2013ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etxebizitza babestuaren tipologiak alda ditzan.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen etxebizitza

babestuaren tipologiak alda zitzan. Mozio hori 2013ko azaroaren 13ko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2013ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Parlamentuko gelazain nagusi burutza gelazainen kidegoko funtzionarioen artean merezimenduen lehiaketa bidez betetzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 11n egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Onestea Nafarroako Parlamentuko gelazain nagusi burutza betetzeko deialdia, gelazainen kidegoko funtzionarioen artean merezimenduen lehiaketa bidez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Deialdia, Nafarroako Parlamentuko gelazain nagusi burutza gelazainen kidegoko funtzionarioen artean merezimenduen lehiaketa bidez betetzekoa

Deialdi hau ondoko oinarriei lotuko zaie:

1. oinarria. Arau orokorrak.

1.1. Deialdi honen xedea da Nafarroako Parlamentuko Zerbitzu Orokoretako gelazain nagusi burutza betetzea, merezimenduen lehiaketaren bidez eta sei urterako, 2013ko martxotik aitzina.

1.2. Aipatu burutza Nafarroako Administrazio Publikoko lanpostuak betetzeko indarrean dagoen araudiaren arabera beteko da, zehazki burutzak betetzeko araudiaren arabera, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraikiz.

1.3. Deialdi honen xede den gelazain nagusi lanpostua D mailakoa izanen da, eta plantilla organikoaren arabera % 46,50eko lanpostu osagarria dauka esleituta, D mailako oinarritzko soldata kontuan hartuta kalkulaturik (zehazki, gelazainen kidegoarena gehi % 10).

1.4. Aipatu burutza betetzeko izendatzen den izangaiak Nafarroako Parlamentuko

Administrazioaren antolaketaerako erregelamenduko 15. artikuluan ezarritako eginkizunak beteko ditu.

1.5. Lanaldia goizekoa eta goiz eta arratsaldekoa izanen da, eta Parlamentuko organo eskudunek edonoiz aldatu ahal izanen dute.

2. oinarria. Izangaiek bete beharreko baldintzak.

2.1. Merezimendu lehiaketa honetan onartuak izateko, izangaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean:

a) Nafarroako Parlamentuko funtzionarioa izatea.

b) Nafarroako Parlamentuko Gelazainen Kidegoko izatea.

c) Jardunean, zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian egotea.

3. oinarria. Eskabideak.

3.1. Merezimenduen lehiaketan parte hartu nahi duenak, Nafarroako Parlamentuko erregistro orokorrean aurkeztuko beharko du eskabidea, deialdi hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bihamunetik hasita hamabost egun naturaleko epean.

Eskabideak deialdi honetako eranskinean argitaratutako ereduaren arabera izanen dira, eta bertan, izangaiek adierazi beharko dute lehiaketan parte hartu ahal izateko ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztela, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna kontuan harturik.

3.2. Eskabideari erantsiko zaizkio deialdian ezarritako baremoa dela-eta alegatzen diren merezimenduei buruzko egiaztagirak, behar bezala kautotuta, Epaimahaiak ez du kontuan hartuko agiri bidez egiaztatzen ez den merezimendurik.

3.3. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izanen da.

3.4. Ezarritako epean eskabiderik aurkeztu ezean, Parlamentuko Mahaiak lehiaketa hutsik gelditu dela adierazten duen ebazpena emanen du, eta ebazpen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4. oinarria. Izangaien onarpena.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Parlamentuko lehendakariak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, ohartaraziz ezen, zerrenda argitaratu eta biharamunetik bost egun naturaleko epean, interesatuek egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahalko dituztela zerrenda horren aurka, eta akatsik izan bada, horiek zuzendu.

4.2. Erreklamazioak egiteko epea iraganik eta horiek ebatzita, Nafarroako Parlamentuko lehendakariak onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsi eta Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko aginduko du.

5. oinarria. Epaimahai kalifikatzailearen kideak, eraketa eta jarduna.

5.1. Hauek izanen dira lehiaketako epaimahai kalifikatzaileko kideak:

Epaimahaiburua: Koldo Amezketa Díaz jauna, Nafarroako Parlamentuko bigarren idazkaria.

Ordezkoa: Samuel Caro Sádaba jauna, Nafarroako Parlamentuko lehenengo lehendakariordea.

Epaimahaikidea: Sergio Zozaya Garralda jauna, Zerbitzu Orokorretako burua.

Ordezkoa: Fernando Zulet Recalde jauna, Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko burua.

Epaimahaikidea: Luis Javier Fortún Pérez de Ciriza jauna, Liburutegi, Artxibo eta Dokumentazio Zerbitzuko burua.

Ordezkoa: Carlos Javier Gil Martínez jauna, Nafarroako Parlamentuko Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuko burua.

Epaimahaikidea: Tomás Mena García jauna, Langile Batzordeko kidea.

Ordezkoa: Laura Vidán Astiz andrea, Langile Batzordeko kidea.

Idazkaria: Silvia Doménech Alegre andrea, Nafarroako Parlamentuko legelaria.

Ordezkoa: Nekane Iriarte Amigot andrea, Nafarroako Parlamentuko legelaria.

5.2. Epaimahaikideak Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 28 eta 29. artikuluek ezartzen duten organo kolegiatuetan parte ez hartzeko eta errefusatzeko araudiaren menpe egonen dira.

5.3. Epaimahai kalifikatzailea eratu beharko da izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara eman ondoko bost eguneko epean.

5.4. Eraketarako, kideen gehiengoak bertan egon beharko du. Erabakiak botoen gehiengoaren bidez hartu beharko dira, eta epaimahaiburua kalitateko botoaz baliatu ahalko da berdinketak desgiteko.

5.5. Epaimahaiak ebatziko ditu deialdiaren oinarriak ulertu eta aplikatzeko moduz sor daitezkeen arazo guztiak. Halaber, izangaiek alegatutako merezimenduen gaineko argibideak eta datu osagarriak eskatu ahalko ditu edozein unetan.

5.6. Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza eska dezake, proba batzuetan nahiz guztietan laguntzeko. Aholkulari horiek dagozkien espezialitate teknikoetan aritzera mugatuko dira, eta epaimahaiari horietan baizik ez diote lagunduko.

6. oinarria. Baremoa eta merezimenduen kalifikazioa.

Nafarroako administrazio publikoetako lanpostuak betetzeko Erregelamendua onesten duen azaroaren 6ko 215/1985 Foru Dekretuko 15. artikulua betez, lehiaketa honetan ondokoak baloratuko dira:

6.1. Administrazio publikoetan egiaz emandako zerbitzuak: 35 puntura bitarte.

6.1.1. Epaimahai kalifikatzaileak ondoko baremoari jarraikiz egingen du balorazioa:

a) Edozein administrazio publikotan emandako zerbitzuak, deialdian eskatutako maila edo taldeko lanpostuetan: 1,50 puntu, urte bakoitzeko.

b) Edozein administrazio publikotan emandako zerbitzuak, deialdian eskatutako maila edo taldekoak ez diren lanpostuetan: 0,37 puntu, urte bakoitzeko.

6.1.2. Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari proportzionalki dagokion puntuazioa emanen zaie izangaiei.

6.1.3. Aldi berean emandako zerbitzuen kasuan, puntuazio handiena dutenak bakarrik baloratuko dira.

6.1.4. Kasuko deialdiaren argitalpen-egunaren ondoren emandako zerbitzuak ez dira baloratuko.

6.1.5. Funtzionarioa zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian egon den aldietako zerbitzuak, edo unitate organiko bateko buru edo zuzendari lanetan aritu den aldietakoak, egoera horietan sartzean zuen lanpostuan eman izan balitu bezala kontatuko dira.

Atal honetan gehienez ere 35 puntu eskuratu ahalko dira.

6.2. Prestakuntza, irakaskuntza, ikerkuntza eta beste merezimendu batzuk: 25 puntu gehienez.

a) Erakunde edo zentro publikoek eta unibertsitateek antolaturiko prestakuntza ekintzetan parte hartu izana: 0,10 puntu, kreditu akademiko edo horren baliokide bakoitzeko (10 ikastordu), gehienez ere 10 puntu eskuratu arte.

Baloratu beharreko prestakuntza ekitaldien ikastordu zatikiak hainbanatu eginen dira.

Ikastorduen kopurua agertzen ez duten ziurtagiriak kreditu batekoak izanen balira bezala baloratuko dira.

Ikasturte bateko iraupena agertzen duten ziurtagiriak 12 kreditukoak balira bezala baloratuko dira.

Erakunde antolatzaileari buruzko betebeharrak betetzen ez badituzte ere, administrazioak agindurik edo baliokotzurik eginak diren prestakuntza ekitaldietan parte hartzea puntuazio berarekin puntuatuko da. Horien artean, espresuki, sartuko dira sindikatuek administrazio publikoetako etengabeko prestakuntzarako itunen barruan antolatuak.

Atal honetan ez dira baloratuko ikasketa titulu bat, unibertsitatekoa nahiz unibertsitatez kanpokoak, lortzeko ikasketak.

b) Kongresu edo jardunaldietan ponentziak edo komunikazioak aurkeztu izana, beka jasotako edo sarituriko zientzia edo ikerketa lanak egin izana, eta aldizkari espezializatueta lanak argitaratu izana: gehienez ere hiru puntu, epaimahai kalifikatzaileak balioetsi beharrekoak, kontuan hartuz lana edo jarduera bakarka edo taldean egin den eta biltzarrak edo argitalpenak toki, eskualde, nazio edo nazioarteko maila duen.

c) Sektore publikoan prestakuntza ekitaldiak antolatu edo/eta horietan irakasle gisa parte hartu izana: gehienez ere, bi puntu. Epaimahai kalifikatzaileak baloratuko du, horien iraupenaren arabera.

d) Deialdian eskatutakoak ez diren ikasketa titulazio eta espezialitateak: gehienez ere 4 puntu.

e) Doktoretza edo lizentziatura gradua izatea deialdian eskatutako titulazioan: gehienez ere 2 puntu.

f) Bestelako merezimenduak, Epaimahaiak baloratzekoak. Besteak beste, lanak sektore pribatuan, prestakuntzako beka nahiz egonaldiak, kontsulta organoetan, aholkularitza, partaidetza edo ordezkarietakoetan parte hartzea: gehienez ere, 4 puntu.

Deialdiko lanpostuarekin zerikusirik duten merezimenduak bakarrik baloratuko dira letra honen barruan.

Ez dira baloratuko goragoko maila akademiko beste batzuk lortzeko ezinbesteko baldintza diren tituluak, haiek merezimendu gisa alegatu eta baremoaren arabera baloratzen badira.

Atal honi dagokion puntuazioa gehienez ere 25 puntukoa izanen da.

6.3. Deialdiaren xede den burutzari buruzko lan oroitidazkia: gehienez ere 25 puntu.

6.3.1. Izangaiek lan oroitidazki bat aurkeztu beharko dute Erregistro Orokorrean, lehiaketara onartu eta baztertuen behin betiko zerrendan adieraziko den epean. Aipatu oroitidazkian burutzaren eginkizunak eta horiek betetzeko baldintza, eskakizun eta baliabideak aztertuko dira, baita deialdiaren xede den unitate organikoaren antolamendu tekniko-administratiboa ere.

6.3.2. Izangaiek lan oroitidazkiaren ahozko azalpena eta defentsa egin beharko dute epaimahaiaren aurrean. Epaimahaiak, egoki irizten badio, izangaiek aurkeztutako merezimenduei eta deialdiaren xede den burutzaren ezaugarrietara egokitzeari buruzko galderak ere egin ahalko ditu agerraldi horretan.

6.3.3. Lan oroitidazkia azaltzeko eta defendatzeko ahozko saiara agertzen ez diren izangaiek lehiaketatik baztertuak izanen dira.

6.3.4. Proba baztertzaila izanen da eta 12,50 puntu beharko dira, gutxienez, gainditzeko.

6.4. Txosten psikoteknikoa: 15 puntu gehienez.

6.4.1. Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko Psikologia Aplikatuaren Zerbitzuak lehiakide bakoitzari buruzko txosten psikotekniko bat eginen du, eta bertan baloratuko du bakoitzaren egokitasun pertsonala deialdiaren lanpostuaren izaera eta ezaugarrietarako. Zerbitzu horrek txosten psikoteknikoan izangai bakoitzari emandako puntuazioa loteslea izanen da lehiaketako epaimahai kalifikatzailearentzat.

6.4.2. Atal honetako puntuazioa 15 puntukoa izanen da gehienez ere, eta lehiaketaren gainerako ataletan lortutakoari gehituko zaio, lehiakide bakoitzaren puntuazio osoa zehazteko.

7. oinarria. Probak gainditu dituztenen zerrenda, izendapena eta kargu-hartzea.

7.1. Izangaien kalifikazioa amaituta, epaimahaiak proba gainditu duten izangaien zerrenda, lehiaketako atal guztiak kontuan hartuta lortutako puntuazioaren arabera ordenaturik, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari igorriko dio. Zerrenda hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

7.2. Lehiakideen guztizko puntuazioetan berdinketa gertatuz gero, administrazio publikoei zerbitzuak ematen antzinatean handiena duenaren alde ebatziko da. Hori eginagatik ere, berdinketako hautsi gabe jarraitzen badu, adinez zaharrena den lehiakidearen alde ebatziko da.

7.3. Parlamentuko Mahaiak puntu gehien lortzen dituen izangaia izendatuko du Nafarroako Parlamentuko Zerbitzu Orokorretako gelazain nagusiaren burutza betetzeko, sei urteko eperako.

Izendapena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

7.4. Izangaia izendapena jakinarazi eta hamar egun naturaleko epearen barruan hartu beharko du deialdiaren xede den burutzaren jabetza. Hala ez bada, eta behar bezala arrazoituta ezinbesteko kasuak salbu, lanpostu hori betetzeko eskubide guztiak galduko ditu. Kasu horretan, Parlamentuko Mahaiak baja hori beteko du 7.1. oinarrian aipaturiko zerrendan agertzen diren izangaiekin, aurreko idatz-zatietan ezarritako moduan.

7.5. Deialdi honen xede den burutza ez bada betetzen merezimendu lehiaketa honen bidez, beste lehiaketa bat deituko da. Bitartean, aldi baterako bete ahalko da, Nafarroako Parlamentuaren Administrazioaren Antolamenduari buruzko Erregelamenduko 15.3. artikuluan ezarritako moduan.

8. oinarria. Errekurtsoak.

Deialdi honen, deialdi honetako oinarrien, izendapen-erabakiaren eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak deialdi hau dela-eta hartzen dituen gainerako erabakien aurka, ondoko errekurtsoetako bat aurkez daiteke:

a) Aukerako berraztertze-helegitea, Legebiltzarreko Mahaiari zuzendua, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik kontaktzen hasita hilabeteko epean.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, erabakia jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik kontaktzen hasita bi hilabeteko epean.

Parlamentuko lehendakariak edo epaimahai kalifikatzaileak deialdi hau aplikatzeko gauzatzen dituzten gainerako egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahalko da, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari zuzendua, egintza edo erabakia argitara eman edo jakinarazi eta, biharamunetik kontaktzen hasita, hilabeteko epean.

I. ERANSKINA Eskabide eredua

_____ jaun/andreak, Nafarroako Parlamentuko funtzionarioa denak, eskabidea aurkezten du _____aren _(e)ko data zuen __ zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Nafarroako Parlamentuko Zerbitzu Orokorretako gelazain nagusi burutza betetzeko merezimendu lehiaketarako deialdian parte hartzeko, eta

AZALTZEN DU:

1. Deialdiko 2. oinarrian eskatzen diren betebeharrak guztiak betetzen dituela eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

2. Lehiaketan kontuan hartzeko modukoak jo eta alegatzen dituen merezimenduak egiaztatzeko agiriak honekin batera aurkezten dituela, deialdiaren 6. oinarrian ezarritakoari jarraikiz.

Eta, azaldutakoaren arabera, honako hau

ESKATZEN DU:

Eskabide hau behar den epean eta moduan aurkeztutzat izatea, eta, ondorioz, eskabidearen xede den merezimendu lehiaketan parte hartzeko onartua izatea.

_____n, 2013ko _____ren __an.

Sinadura:

